

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2025eko abuztua

2025eko abuztuan % 1,5eko igoera izan da sarreretan eta % 1,2koa ostatu-gauetan Euskal AEko hoteletan

Gelen okupazio-maila % 86,0ra iritsi zen eta prezioak % 7,3 igo ziren 2025eko abuztuan

2025eko abuztuan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 1,5 igo dira eta ostatu-gauak % 1,2 urte arteko terminoetan, Eustatek landutako datuen arabera. Erregistratutako 432.427 sarrerek 921.868 ostatu-gau ekarri dituzte guztira.

Sarreraren % 55,2 eta ostatu-gauen % 53,1 jatorri atzerritarrekoak izan dira, sarreraren kasuan % 4,9ko eta ostatu-gauen kasuan % 6,6ko igoeren ondoren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Abuztua 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	2024/08
EUSKAL AE	432.427	1,5	921.868	1,2	2,13	2,14
Estatukoak	193.807	-2,4	431.921	-4,3	2,23	2,27
Atzerritarrak	238.620	4,9	489.947	6,6	2,05	2,02
Araba/Álava	58.916	-7,0	118.004	-7,2	2,00	2,01
Estatukoak	36.089	-5,4	79.026	-9,1	2,19	2,28
Atzerritarrak	22.827	-9,4	38.978	-3,0	1,71	1,60
Vitoria-Gasteiz	44.615	-9,6	91.581	-9,1	2,05	2,04
Bizkaia	197.593	4,7	415.902	4,4	2,10	2,11
Estatukoak	87.787	1,2	190.055	-1,6	2,16	2,23
Atzerritarrak	109.806	7,6	225.847	10,0	2,06	2,01
Bilbao	130.684	4,1	274.001	5,1	2,10	2,08
Gipuzkoa	175.918	1,2	387.962	0,6	2,21	2,22
Estatukoak	69.931	-5,0	162.840	-5,0	2,33	2,33
Atzerritarrak	105.987	5,7	225.122	5,1	2,12	2,14
Donostia / San Sebastian	102.702	-2,3	242.187	-3,0	2,36	2,38

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Irailaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Arabaren 58.916 sarrera eta 118.004 ostatu-gau erregistratu dira, aurreko urteko abuztuan baino % 7,0 eta % 7,2 gutxiago, hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, aurreko urtean baino % 4,7 sarrera gehiago eta % 4,4 ostatu-gau gehiago erregistratu dira. Sarrerak 197.593 izan dira, eta ostatu-gauak, berriz, 415.902, 2025eko abuztu honetan. Era berean, sarrerak % 1,2 gehitu dira Gipuzkoan (175.918 guztira), eta ostatu-gauak % 0,6 (387.962).

Hiriburuka, sarreraren kopurua % 9,6 jaitsi da Gasteizen eta % 2,3 Donostian. Bilbon, sarrerak % 4,1 igo dira. Antzeko moduan, aurreko urteko abuztuaren aldean igarotako ostatu-gauen kopurua % 9,1 jaitsi da Gasteizen eta % 3,0 Donostian. Bestalde, Bilbok % 5,1 ostatu-gau gehiago erregistratu ditu.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 2,13 egunekoa izan da 2025eko abuztuan, aurreko urteko hil berean izandako 2,14 egunen antzekoa¹.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Abuztua 2025

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2025/08	p.p.*	2025/08	p.p.*	2025/08	m/m-12 (%)	2025/08	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	78,5	-0,2	86,0	0,2	154,37	7,3	132,74	7,5
Araba/Álava	69,2	-5,5	84,1	0,3	106,20	8,9	89,35	9,4
Vitoria-Gasteiz	68,8	-6,8	87,4	0,7	96,93	9,9	84,76	10,9
Bizkaia	79,0	2,1	85,2	0,8	132,44	4,3	112,84	5,3
Bilbao	82,4	0,7	87,3	-0,8	144,58	4,8	126,24	3,8
Gipuzkoa	81,4	-1,0	87,5	-0,6	193,99	9,6	169,75	8,8
Donostia / San Sebastian	84,8	-2,1	90,4	-2,2	238,10	11,8	215,13	9,2

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Irailaren 22a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Euskal AE osoan plazen okupazio maila % 78,5ekoa izan da abuztuan, 2024ko abuztuan baino ehuneko 0,2 puntu txikiagoa. Gelaka neurtuz gero, % 86,0ra iritsi da okupazioa, aurreko urteko abuztuan baino ehuneko 0,2 puntu gehiago.

Eguneko batez besteko tarifa (bainugeladun logela bikoitz bati aplikatua, ostatu hartzeko bakarrik) edo ADRa 154,4 eurokoa izan da 2025eko abuztuan Euskal AEn, hau da, % 7,3ko igoera izan da aurreko urteko abuztuarekin alderatuta. ADRa 194,0 eurokoa izan da Gipuzkoan, 132,4 eurokoa Bizkaian eta 106,2 eurokoa Araban. Hiriburuka, aldeak handiagoak izan dira; izan ere, ADRa 238,1 eurokoa izan da Donostian, 144,6 eurokoa Bilbon eta 96,9 eurokoa Gasteizen.

Gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak (edo RevPar) 132,7 eurokoak izan dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2025eko abuztuan, aurreko urteko hil berean baino % 7,5 handiagoak.

Abuztuan, Euskal AEko hiru hiriburuek herriko jaiak edo aste handiak ospatzen dituzte. Gasteizko hotel-establezimenduetan, **Andre Maria Zuriaren jaietan** (abuztuaren 4tik 9ra) 8.605 sarrera eta 18.964 gaualdi izan dira: aurreko urteko aldi berean erregistratutakoak baino % 6,3 eta % 6,7 gutxiago. Mota horretako establezimenduen okupazio-maila % 73,2koa izan da aurtengo jaietan plazen arabera neurtuta, eta % 93,4koa gelen arabera neurtuta.

Donostiako Aste Nagusia abuztuaren 9tik 16ra bitartean egin da 2025ean. Aldi horretan 26.674 sarrera eta 64.655 ostatu-gau erregistratu dira guztira. Aurreko urteko Aste Nagusiaren aldean, jaitsi egin dira sarrerak (% 2,1) eta ostatu-gauak (% 1,6). Okupazio-maila % 87,7koa izan da plazaka neurtuta, eta % 93,1ekoa gelaka neurtuta.

¹ Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimenduetako bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEko egonaldiaren iraupen osoari.

Azkenik, 2025eko abuztuaren 16tik 24ra bitartean **Bilboko Aste Nagusia** ospatu da. Aste horretan, hiriko hotel-establezimenduetan 37.746 sarrera eta 80.443 ostatu-gau izan dira. Bi zifra horiek aurreko urteko zifren aldean igoera ekarri dute, % 4,7 sarreraren kasuan eta % 6,0 ostatu-gauen kasuan. Plazen okupazio-maila % 83,6koa izan da eta logelen arabera % 88,5koa.

Urteko metatua

Urte hasieratik hona metatutako aldian (**2025eko urtarriletik abuztura**), aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta, sarrerak % 3,6 igo dira, eta ostatu-gauak, berriz, % 4,8. Batez besteko egonaldia, zazpi hilabeteko tarte horretan, 1,99 egunekoa izan da 2025ean, aurreko urteko aldi metatu berean ikusitako 1,98 egunen oso antzekoa.

Urteko lehenengo zortzi hilabeteetako okupazio-maila % 59,6koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 70,5koa logelen arabera neurtuta, aurreko urteko aldi berean baino ehuneko 0,9 eta 1,2 puntu handiagoa, hurrenez hurren.

Informazio-oharra

Hotelen ETHaren erantzun tasa % **94,2koa** izan da 2025eko abuztuan. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismo-datuoen esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62